

LAND ART

Idoia Lizeaga

irailak 27-28 septiembre
Astigarraga

 Sagardoetxea

LAND ART

Idoia Lizeaga

Astigarragako Idoia Lizeaga artistaren duela bi urteko land-art lanak izan zuten harrera ona ikusita, aurten, Sagardun Partzuergotik, eta Sagardotxea Museoa eskatuta, artistaren beste interbentzio bat izango dugu herrian "Sagar Uzta" festa dela eta.

Land art-aren mamiak, ezagutzen ditugun beste ohiko arteen (margoa, eskultura, musika...) esentzia bera dauka: gizartearen arreta erakartzea eta gizartearen isla sortzea. Dena dela ere, baditu beste arteekiko ezberdintasunak: iragankorra izatea eta normalean arte lan hauek material biodegradagarriekin eraikiak izatea.

Aurtengo lanak "sagar jauzia" izango du izena, eta aurreko aldian hainbat artisten artean gauzatu zen arren, oraingo edizioan "herriak eraikiko du bere arte-lana; kaleko jendeak izango du protagonismo osoa" Lizeagaren hitzetan. Horretarako, artistaren irizpideak jarraituz, larunbat arratsaldean tailer irekiak izango dira, eskultura osatuko duten "kizkiak" margotzeko.

Aurreko edizioan, toki bakar batean kokatu zen interbentzioa, baina aurten "herri osoan ikusiko da zerbait gertatzen ari dela". Astigarragako sarreretan dauden "hiru kupeletan zerbait ezberdina nabaritu da", eta herria osoan zehar... zuhaitzetik... sagar jauzia.

Bestalde, herriaren bihotzean, Udaletxean eta plazan, "interbentzioaren aztarnak" izango dira.

Tras el éxito que tuvo el land art de la artista Astigarrarra Idoia Lizeaga hace un par de años, este año, desde el Consorcio Sagardun, e impulsado por Sagardotxea Museoa, contaremos con una nueva intervención de la artista dentro de la fiesta "Sagar Uzta" de Astigarraga.

El land art contiene la misma esencia que otras artes (pintura, escultura, música...): atraer la atención de la sociedad y crear un reflejo de la misma. Aún así, conviene destacar algunas características que lo diferencian del resto de las artes: son efímeras y normalmente se construyen con materiales biodegradables.

"Sagar jauzia" es el nombre que se ha elegido para la obra de este año y aunque en la pasada edición contó con la participación de otros artistas, en esta edición "el pueblo construirá su propia obra de arte. La gente de la calle será la que tenga el total protagonismo" en palabras de Lizeaga. Para ello, el sábado por la tarde se celebrarán unos talleres abiertos, donde siguiendo los criterios de la artista, se pintarán los "kizkiak" que compondrán la escultura.

En la pasada edición la intervención se realizó en un único lugar del pueblo, pero este año "se verá que está pasando algo en todo el pueblo". En las tres kupelas que hay en las entradas de Astigarraga "se notará algo diferente", y en el pueblo en general... desde los árboles... la sagar jauzia.

Por otra parte, en el ayuntamiento y en la plaza, lugares que conforman el corazón del pueblo, se verán los indicios de la intervención.

Laguntzaileak /
Colaboradores:

- Astigarrate Kultur Elkartea.
- Laubide Mekanizatuak.
- Ganboa Lorezaintza zerbitzuak.

EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto

TURISMO GIPUZKOA
HAIN TXIKIA, HAIN HANDIA
TAN PEQUEÑA, TAN GRANDE


Astigarragako Udala